BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 57

D MAILA





Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, gehi jasodura bat zati batean mantsardatua. Harlanduzko fatxada, silarrixkarekin konbinatua. Zurezko begiratokia ezkerraldeko baoan atariaren parean. Jatorriz proiektu komuna Urbieta 59rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (6. goi oina, mantsardatua).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.